

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra Arloa

*Bandoa*

Salmenta Ibiltaria arautzen duen Ordenantzak ezartzen du jarduera hori gauzatzeko, aurretik, udalaren baimena lortu beharko dela; baimen hori horretarako sustatzen den norgehiagoka-prozeduran ezarritakoaren arabera emango da.

Aipatutako Ordenantzaren lehenengo Xedapen Gehigarriak ezartzen du Alkateak eskumena duela postuak esleitzeko prozedura publikoaren deialdia egiteko.

Aurretik adierazitakoaren arabera, 2021. urterako Santu Guztien egunean loreak saltzeko postuak jartzea arautuko duten arauak jakinarazten dira. Arau horiek nahitaez bete beharko dituzte jarduera horretan interesatuta dauden guztiak:

*Lehena:* Loreak saltzeko baimena eskuratu nahi duten pertsonak alta emanda egon beharko dute Jarduera Ekonomikoen Zergako dagokion epigrafean, eta egunean eduki beharko dituzte Gizarte Segurantzako ordainketak; era berean, salmenta ibiltariari dagozkion udal zergak ere ordainduta eduki beharko dituzte; horrez gain, jarduera ekonomikoen arriskuak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko dute, eta salmenta ibiltariaren xedeko produktua erregulatzen duen araudiak eskatutako baldintzak bete beharko dituzte. Horiek guztiak egiaztatzen dituzten dokumentuak eduki beharko dituzte jardueraren hasieran, eta, horretarako, hori guztia adieraziko duen ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute.

Hala eta guztiz ere, eskualdeko kultura ondarea zaintzeari dagokionez, Salmenta Ibiltaria Arautzen duen Ordenantza 15. artikuluan xedatutakoak kontuan hartuko da.

*Bigarrena:* Baimenak banaka emango ditu Udal organo eskudunak, pertsona edo entitate interesatuak eskatuta, betiere eskaera-kopurua eskainitako postu-kopurua baino txikiagoa bada. Horrela izan ezean, lehia erregimenean emango dira.

*Hirugarrena:* Postuak Jenaro Etxeandia plazan jarriko dira, eta bi metro linealeko luzera izango du bakoitzak.

*Laugarrena:* Loreak saltzeko baimendutako egunak urriak 30 eta 31 eta azaroak 1 dira, Jenaro Etxeandia plazan, urriaren 30 eta 31n, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara, eta ordutegi librean, azaroaren 1ean, egun osoan.

*Bosgarrena:* Udalak urriaren 22an egingo du postuen esleipena, urriaren 13tik 21era jasotako eskaeren artean, eskatzaile-kopurua eta hartarako gaitutako tokia kontuan hartuta, eta emaitza urriaren 25etik aurrera jakinaraziko zaie esleipendunei.

*Seigarrena:* Bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa dagokion Zerga Ordenantzak ezartzen duena izango da.

*Zazpigarrena:* Era berean, eskaera urriaren 21etik aurrera egiten dutenek udalak esaten diena bete beharko dute Jenaro Etxeandia plazan koka daitezen, zenbat toki dagoen kontuan hartuta.

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Movilidad, Vía Pública y Obras

*Bando*

La Ordenanza reguladora de la Venta Ambulante establece que el ejercicio de dicha actividad requerirá la previa obtención de la correspondiente autorización municipal, que se otorgará de acuerdo con lo establecido en el procedimiento de concurrencia que al efecto se promueva.

La Disposición Adicional primera de la citada Ordenanza establece la competencia del Alcalde para la convocatoria del procedimiento público de adjudicación de puestos.

En virtud de lo que antecede, se hace saber las normas que ha de regir la instalación de puestos para la venta de flores en la celebración del día de Todos los Santos, para el año 2021, de obligado cumplimiento para todos los interesados en dicha actividad:

*Primero:* Las personas interesadas en la obtención de autorización para la venta de flores deberán estar dadas de alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas y estar al corriente en el pago de las cotizaciones a la Seguridad Social, estar al corriente en el pago de las tasas municipales correspondientes al ejercicio de la venta ambulante, poseer un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos de la actividad económica y reunir las condiciones exigidas por la normativa reguladora del producto objeto de la venta ambulante, debiendo estar en posesión de la documentación que acredite dichos extremos al inicio de la actividad, manifestada mediante la presentación de una declaración responsable en tal sentido.

No obstante lo anterior, se tendrá en cuenta lo dispuesto en el artículo 15 de la Ordenanza Reguladora de la Venta Ambulante, en cuanto a la conservación del patrimonio cultural comarcal.

*Segundo:* Las autorizaciones se otorgarán de forma individual por el órgano municipal competente, a solicitud de la persona o entidad interesada siempre que el número de solicitudes sea menor que el de los puestos ofertados. En caso contrario, se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva.

*Tercero:* La ubicación de los puestos será en la Plaza Jenaro Etxeandia y con una dimensión de 2 metros lineales para cada uno de ellos.

*Cuarto:* Los días que se autorizará la venta de flores son los días 30 y 31 de octubre y el día 1 de noviembre en la Plaza Jenaro Etxeandia. El horario para la venta será, los días 30 y 31 de octubre de 8:00 a 20:00 horas y, el día 1 de noviembre, horario libre durante toda la jornada.

*Quinto:* La asignación de puestos por parte del Ayuntamiento se realizará el día 22 de octubre entre las solicitudes recibidas desde el día 13 hasta el día 21 de octubre, en función del número de solicitantes y del espacio a habilitar al efecto, lo cual será comunicado a los adjudicatarios a partir del día 25 de octubre.

*Sexto:* La tasa por ocupación de vía pública será la fijada en la Ordenanza Fiscal correspondiente.

*Séptimo:* Igualmente, todos los solicitantes que formulen su solicitud a partir del día 21 de octubre, estarán a lo que se les indique desde el Ayuntamiento para su ubicación en la Plaza Jenaro Etxeandia, en función de la disponibilidad existente.

*Zortzigarrena:* Jarduera guztiei eska dakizkiekeen higiena-eta prebentzio-neurriak: Jardueraren titularrak ziurtatu beharko du hartzen dituen garbitasun- eta desinfekzio-neurriak Lehendakariaren irailaren 17ko 38/2021 Dekretuan jasotako establezimenduen, lokalen, instalazioen edo espazioen erabileraren ezaugarrietara eta intentsitatera egokituak izango direla. SARS-CoV-2 birusak sortutako infekzioak ez hedatzeko prebentzio-neurriak eta alor horretan ematen diren gainerako xedapenak eguneratzeko eta erabakitzeko eta testu bakar batean bategiteko da Dekretu hori.

Eta hau jakitera ematen da, orok jakin dezan.

Irun, 2021eko urriaren 5a.—Idazkaritza eta Zuzenbide Zerbitzuko teknikaria. (6512)

*Octavo:* Medidas de higiene y prevención exigibles a todas las actividades: La persona titular de la actividad deberá asegurar que se adoptan las medidas de limpieza y desinfección adecuadas a las características e intensidad de uso de los establecimientos, locales, instalaciones o espacios recogidas en el decreto 38/2021, de 17 de septiembre, del Lehendakari, de refundición en un único texto y actualización y determinación de medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2 y demás disposiciones que se dicten en la materia.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Irun, a 5 de octubre de 2021.—El técnico de Secretaría y Servicios Jurídicos. (6512)